



Jose Luis Butron eskultorea

Lanari emandako 60 urtean 200 eskultura baino gehiago sortu dituzte bere eskuek.

hiruka

Uribe Kostako astekaria



12. zenbakia

2015eko
apirilaren 16tik
apirilaren 22ra arte



Kanpomartxo domekan

IV. Argihizkiak: lehiaketa martxan

Argazkien gaineko testu laburrak daborduko aurkez daitezke, maiatzaren 15era arte.

Argihizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketaren IV. edizioa abian dago. Uribekostarrak diren edo bertan bizi diren argazkilarien hamar lanetan oinarritutako testuak idatzi beharko dituzte parte-hartzaileek. Fo-


tografoak honakoak dira: David Heranz, Marisol Ramirez, Luis Jauregialtzo, Ines Bermejo, Sonia Aoujil, Nerea Falagan, Marta Iraurgi, Ivan Viña, Patricia Merino eta Itsaso Bartolome.

Lehiaketan kategoria bi daude: testu labur-laburrak eta laburrak. Sariak 200 eurokoak izango dira. 16 urtetik gorakoek parte har dezakete, gura duten testu mota erabiliz. Lehiakideek gehienez testu bi bidaliko dituzte, baturaz edo euskalkiren batean. ▶7

Euskara arnas daiteke Getxon?

Algortako Azebarri elkarteak kafe-beraldia egingo du eguaztenean, Ekin tabernan, arrastiko 19:30ean. *Euskararen arnaguneak, erabileraren erronka* da mahaigaineratutako gaia. Mahaiaren bueltan jardungo dute Jon Sarasua Mondragon Unibertsitateko irakasleak, Josu Amezaga EHuko irakasle eta Berria Taldeko Administrazio Kontseiluko kideak eta Aiora Zulaika *Pirritx* eta Mertxe Rodriguez *Marimotots* pailazoek. ▶7

Txapelduna, Organik-en lan berria



Lutxanako geltokia Sondikakoagaz lotuko dute, Lezama eta Zazpi Kaleetako geltokien arteko lanak direla eta. ▶3

Sopelako kuadrillek Korto Express txapelketa antolatu dute lehenengoz; zapatu honetan izango da ekimena. ▶4

Kandela Egunaren hirugarren edizioa egingo dute zapatuan Plentziako frontoian; egun osoko egitaraua izango da. ▶5

Leioa Saskibaloit taldeko presidente Juan Ramon Rodriguez: «25. urteurrena dela eta, bulebarra saskiz beteko dugu». ▶14

Tokiko enpresen elkarlana bultzatuz

Ekainera bitartean, udalerriko enpresen artean elkarlanerako aukerak sorrarazteko helburuagaz, «GetxoKoKrea» egitasmoa ipini dute martxan.



Eguaztenean, hilak 15, aurkeztu zuten egitasmoa Getxo Elkartegian.

Udalerriko enpresen artean elkarlanerako aukerak sorrarazteko helburu duen «GetxoKoKrea» ekimena aurkeztu zuten Getxo Elkartegian, hilaren 15ean, eguaztenagaz. Egitasmoa enpresei edo garapen aurreratua duten enpresa-proiektuei zuzenduta dago; hori bai, ondorengo arlo estrategikoakaz lotura zuzena edo zeharkakoa izan behar dute: sormenaren eta kulturaren industriak, kirolaren teknologia eta industriak, ongizatea eta turismo kulturala, eta turismoa eta gizarte berrikuntza, zein teknologia berriak, zerbitzu aurreratuak, merkataritza eta ostalaritza.

«GetxoKoKrea» lau jardunalditan banatuta egongo da, apiriletik ekainera luzatuko direnak; jardunaldi bakoitzak hainbat saio izango ditu. Saio bereziak ere egingo dituzte, berbarako, norbanakoen elkarrizketak. Hurrengo saioa apirilaren 22an izango da, «Focus Group Sektorialak» jardunaldiaren barruan. Bertan, arlo bakoitzeko enpresen arazoak, erronkak eta aktiboak identifikatuko dituzte. ◀

Info+: www.getxo.eus

II. jardunaldia

Apirilak 22, eguaztena

09:00-11:00 Kirolaren eta ongizatearen teknologiak eta industriak.

11:00-13:00 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Apirilak 24, barikua

09:00-11:00 Ongizatea eta kultura-turismoa.

11:00-13:00 Merkataritza eta ostalaritza

Apirilak 29, eguaztena

09:00-11:00 Sormenaren eta kulturaren industriak.

11:00-13:00 Zerbitzu profesional aurreratuak.

III. jardunaldia

Maiatzak 15, barikua

09:00-12:00 Parte hartzen duten enpresa guztien topaketa.

Norbanakoen elkarrizketak

Maiatzak 25, 27 eta 29

09:00-13:00 Interesatutako enpresen eremu irekia, euren negozioaren ereduaz aztertu ahal izateko.

Udan ume sahararrak etxean hartzeko izen-ematea zabalik dago

Tindouf-eko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan bizi behar duten umeak gurera ekarriko dituzten udan ere Atfal Sahararen aldeko elkarte getxoztarrak. 10 eta 12 urte arteko neska-mutiletako bat etxean hartzeko izena emateko aukera apirilaren 25era arte dute udalerriko familiak. Horretarako, ekimen horretan parte hartu gura dutenek aipatutako elkarteagaz edo Getxoko Udalagaz harremanetan jarri beharko dute. Umeei mediku-azterketa eta elikagai egokiak eskaintzeaz gain, neska-mutil sahararren errealitatea ezagutzeko aukera ematen zaie familia getxoztarrei. ◀

Info+: atfalgetxo@gmail.com

Bidezko Merkataritza izendapena berri du Udalak, bigarrenez

Getxok «Bidezko Merkataritzaren Galdeko Hiria»-ren izendapena berri du bigarren urtez; hala, 2012ko irailean jasotako estatusa izaten jarraituko du. Getxo eta Bilbo izan ziren izendapen hori jaso zuten EAEko lehen udalerririk; gaur egun, Espainiar estatuko 12 hiririk dute. Getxo urtez urte Bidezko Merkataritzaren aldeko lana indartzen dabilela azaldu dute Udala iturriek, «sentsibilizazioa bereziki sustatuz». Gaur egun tokiko 22 dena txikizkarik saltzen dituzte arlo eta mota horretako produktuak, eta ostalaritzako bederatzi establezimenduk eta enpresa bik kontsumitzen dituzte, besteak beste. ◀

Paula Amieva izango da GUK plataformako alkategaia

Paula Amieva getxoztarra aukeratu dute GUK (Getxoko Udala Kandidatura) plataformaren hautagai nagusitzat. Podemos-Ahal Dugu, Ezker Anitza-IU, EQUO eta Independentiek talde politikoek babestu dute plataforma hori. Amievak 28 urte ditu eta Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna da. Orian dela urtebete hasi zen gizarte mugimenduetan parte hartzen, «gure udalerririk aldatzea bat behar duela jabetzen naizelako egunero». Kandidatura horregaz «herriko egoera politikoa aldatu» gura dute.

Amieva gainera, beste hainbat aukerak aurkeztu zuten euren burua hautagaitzarako, eta bozketa bidez,



Paula Amieva aukeratu zuten GUKeko zerrendaburu jarduteko.

Maiatzeko hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko 1.500 sinadura bildu behar dituzte; daborduko 2.000 inguru jaso dituzte. ◀

Info+: www.gukgetxo.com

REBEL TATTOO
Basagoiti 73, 48991 ALGORTA
TF. 946 12 07 52
[facebook/RebelTattooAlgorta](https://www.facebook.com/RebelTattooAlgorta)

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

Erandoio

Lutxanako tren-geltokia martxan



Euskotrenen eta Metro Bilbaoren arteko zerbitzua ipiniko dute Lutxanan.

Sondikako geltokia Lutxanakoagaz lotuko dute, Lezama eta Zazpi Kaleetako geltokien arteko lanek irauten duten bitartean.

Txorierrri eskualdea metro-sarean erabat sartzeko azpiegitura eraikitzeke lanak direla eta, Lezamako eta Zazpi Kaleetako geltokien arteko ohiko zerbitzua aldatu beharko dute, 3. linea amaitu arte. Eraginak murrizte aldera, Euskotren enpresa publikoak ordezeko garraio-zerbitzua eskainiko du Txorierriko trenbide-linean; hala, aurreikusita daukate orain zerbitzutik kanpo dagoen Sondikako geltokiaren eta Lutxanako geralekuaren arteko trenbide trazatua egokitzea. Lutxanan garraioa aldatu beharko dute bidaiariak. Beraz, Euskotrenen eta Metro Bilbaoren ar-

teko zerbitzu konbinatua programatu dute. Lutxanako geralekua berriro zabalduko dutenez, joan-etorriak egin ahal izango dira Txorierrri eta Bilbo artean, Euskotrenen unitateetatik Metro Bilbaokoetara aldatuz eta alderantziz. Azaldu dute programatu duten garraio-aldaketa hori dela eskain daitkeen «alternatiba onena».

Halaber, Lutxanako geltokian garraioa aldatzeko bidaiariak gehienez 5 minutu itxaron beharko dutela jakinarazi dute. Euskotrenen bidaia-titulu berri bi ipiniko ditu martxan, ohiko zerbitzua ebakita dagoen bitartean. Bono10 Konbinatuagaz hamar bidaia egin ahal izango dira Txorierrri, Lutxana eta Bolueta arteko edozein geltokiren artean; bidaiaren prezioa euro batekoa izango da. Halaber, tarifa murriztuak dituzten lagunek Bono10R Konbinatua eskuratu ahal izango dute, bidaiaren prezioa 0,60 eurokoa izango da. ◀

Leioa

Etxean laguntzeko kontratazioak

Udalak leioaztarren eskura ipiniko dute etxeko eguneroko lanetan (garbiketa, janariak prestatzea, erosketak...) laguntza behar duten herritarrek pertsona bat kontratazeko aukera. Aurtengo ekitaldirako, prestazio horiek 62.000 euroko aurrekontua daukate eta urte osoan eska daitezke. Eskabideen eredu normalizatua eta baldintzen gaineko ziurtagiriak Udal Gizarte Zerbitzuetan aurkeztuko dira. Kontratazioen kostua diruz lagunduko da, baremoa aplikatu eta

lortzen diren puntuen arabera. Hala ere, diru-laguntza ezingo da hileko 300 eurotik gorakoa izan, udal iturriek zehaztu dutenez.

Orokorrean, prestazio hori jaso dezakete, autonomia galdu izanagatik, eguneroko zenbait lanetan laguntza behar duten pertsona edo familiek, betiere laguntzeko familia-sarerik ez badute, edo edukita ere, nahikoa ez bada. Ezinbestekoa da lan horiek egiteko gai den inor etxean ez bizitzea, ohartarazi dutenez. ◀

Leioako ikasle bi batxilergoko onenen artean

Eusko Jaurlaritzak duela aste batzuk banatu zituen 2013-2014ko Batxilergoko Sari Bereziak. Hain zuzen ere, hamabost saridunen artean daude Miguel Orbegoza Rodriguez eta Rene Postigo Sanchez, Gaztelueta eta Irlandesas ikastetxe pribatuetako ikasleak, hurrenez hurren. Irabazleek ingelesa hobetzeko ikastaroa eta egonaldia egingo dituzte udan: hiru astez, Toronton (Kanada). Batxilergo amaitu berri zuten EAeko 726 ikasle aurkeztu ziren saria lortzeko probetara. ◀

Kantikak Sorian abestuko du hilaren 18an

Soria Hiria umeen abesbatzen jaialdiko hirugarren edizioan parte hartuko du apirilaren 18an Leioa Kantika Korala taldeak. Basilio Astulez zuzendariaren ekimenez, Leioako Udal Kontserbatorioaren babespean sortu zen 2011n Kantika. Gaur egun 11 eta 18 urte bitarteko 45 neska-mutilek osatzen dute, denak kontserbatorioko ikasleak. Izan ere, bertoko arduradunen arabera, jasotzen duten musika-heziketa handitzea da neska-mutileen abesbatzaren helburuetako bat. ◀

LUBERRI Basolanak S.L.
LOREZAINZA

SGS Nº ES108014
SGS Nº ES108015
Ibidan

- Soropila Ezartzea
Luzerria prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzioak organitze lanak eta beste lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Mazka, ureztatze, organitze, egurazte, aratzea eta destinkatzea, berrikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak
Hasteko, mantentzeko, berriketako, zuhaitza opaingaririk inausketak, ezabaketa inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Arpe Ibaierza 28A behelko solarria B12 Lokala (ERANDIO) Megi: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Sopela

Zirku-asteburua, dendari txikien alde

Sopelako Salerosle Elkartek aste akabu osoko zirku-festa antolatu du Udaletxe plazan. Hiru egunez artisautza-postutxoak eta zirku-ikuskitunak egongo dira.



Zirkuagaz lotutako jarduera ugari egongo da.

Herriko denden salmentak handitzeko asmoagaz, asteburu osoko zirku-festa antolatu du Sopelako Salerosle Elkartek. Hiru egunez herriko Udaletxe plaza jardueraz beteko da, sopeloztarren eta bisitarien gozamenerako. Zirku-jaiak ohiko artisautza-azoken itxura izango du: eskuz egindako produktuak, jan-edana erosteko aukera, eta abar. Horrez gainera, zirkuagaz lotutako ikuskizun ugari antolatu dituzte, umeentzat zein helduentzat.

Lehenengo aldiz

Azoka barikuan 18:00etan zabalduko da, eta domekan 22:00ak arte luzatuko da. Zapatu gauean, gainera, suagaz lotutako ikuskizun harrigarria egingo dute, hori ere Udaletxe plazan. Domeka arrastian, berriz, hirurduan lau ikuskizun jarraian egingo dituzte.

Salerosle Elkartek mota honetako ekitaldi bat antolatzen duen lehenengo aldia da. Euren helburua Sopelara bisitariak erakartzea da, dendari txikien eta tabernen salmentak handitze aldera. ◀

Egitaraua

Apirilak 17, barikua

18:00 Artisautza-postutxoaren azoka zabalduko da.

18:00 - 22:00 *Vosotros* zirku-ikuskituna eta *Gure dantzak* umeei begirako ikuskizuna.

Apirilak 18, zapatua

12:00 Artisautza-postutxoaren azoka zabalduko da.

12:00-15:00 Ipuin-kontalaria umeentzat, eta *El viejo* zirku-ikuskituna.

17:00-22:00 Umeentzako ipuin-kontalaria, eta zirku-ikuskitun bi: *Mustafa no estafa* eta *No es posible la edad*.

Gauez *Piratak sutan* zirku-ikuskituna

Apirilak 19, domeka

12:00 Artisautza-postutxoaren azoka zabalduko da.

12:00-15:00 Umeei begirako ipuin-kontalaria, eta zirku-ikuskitun bi: *El viejo* eta *Desequilibrio*.

17:00-22:00 Umeentzako ikuskizuna: *A bailar*. Hiru zirku-ikuskitun: *Las edades*, *Mustafa no estafa* eta *El viejo*.

22:00 Artisautza-postutxoak itxiko dira.

Jarduera guztiak Sopelako Udaletxe plazan izango dira. Hiru egunotan, eskuz egindako zaldiko-maldikoak eta pirata-itsasontzia ere egongo dira, umeentzat.

Pala txapelketa parekidea antolatu du jai-batzordeak

Euskal pilotan emakumeen parte-hartzea bultzatzeko asmoz, pala txapelketa herrikoia eta parekidea antolatu du Sopelako jai-batzordeak. Azaldu dutenez, pilotaren mundua «gizonezkoei mugatua» dago, eta egoera hori irauli gura dute: «gaitasun falta dela pentsatuko dute batzuek, edo muga biologikoak daudela tartean; gure ustez, entrenamendua falta zaigu. Plaza erdira salto egiteko entrenamendua, erdira salto egin eta lotsarik ez sentitzeko entrenamendua, publikoki agertu eta gai sentitzeko».

Txapelketan parte hartzeko ezinbestekoa izango da apirilaren 26a baino lehenago izena ematea. Partidak

maiatzean hasiko dira Balea plazako frontoian. Finala Sopelako jaietan jokatuko da. Baina azpimarratu dutenez, helburua ez da batere lehiakorra: «Sailkapen eta txapeldun dinamikean sartuta egongo bagara ere, askoz gehiago egongo da jokoan: beldurrari agur esan eta kirolaz gozatzeko aukera izango dugu, umorea galdu barik».

Sopeloztarrak txapelketan parte hartzera gonbidatu dituzte: «bada garaia animatzeko, frontoia eta plaza erdiak 'gure' ere sentitzeko, sentitu eta izateko. Diskurtsotik salto, pala hartu eta kantxara! Benetan, herriak eginga eta herriarentzat izan dadin!». ◀

Izena emateko: palatxapel@gmail.com

I. Korto Express txapelketa, kuadrillen ekimenez, zapatuan

Sopelako kuadrillek jo eta su jarduerak antolatzen jarraitzen dute. Zapatuan ekimen berritzaile bat prestatu dute: Korto Express lehiaketa. 09:30ean Udaletxe plazan elkartu eta epaileek gai zehatz bat emango diete parte-hartzaileei. Herriko hamar leku ere proposatuko dizkiete, eta horietatik gutxienez leku batek film laburrean agertu beharko du.

Kuadrillek 20:00ak arte izango dute istorioa pentsatu, grabatu eta editatzeko. Taldeek editatzeko gela bat izango dute Kurtzion; antolatzaileek ediziolanetan lagunduko diete. Grabaketa guztiak egunean bertan egin beharko dituzte, eta bideoak edozein euskarri-



gaz graba daitezke. Gehienezko iraupena zazpi minutukoa izango da.

Lanak 20:00etan entregatu beharko dituzte Kurtzion. Lan denak areto nagusian proiektatuko dira. Egunari txapela jartzeko, luntxa egongo da. ◀

Izena emateko: sopekoor@gmail.com

OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaiak, balcoak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!

Bentabu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

Especialistas en desayunos abrimos desde las 07:00h. y 08:00h. los fines de semana y festivos

www.cafebarzuazuza.com

Iturpiti 13, PLENTZIA
Tf. 94 677 31 28

LURREN

GOSARIAK, PINTXOAK, KORAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaletxe atzean)



Hurtzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
I K A S T O L A

Plentzia

III. Kandela Eguna

Euskal preso eta iheslari politikoak etxeratzearen aldeko jaialdia egingo dute Jai Alai frontoian.

Zapatu honetan, hilak 18, euskal preso eta iheslari politikoak etxeratzearen aldeko jaialdia hartuko du Plentziak. Izan ere, hirugarrenez, Kandelaria kultur elkarteak Kandela Eguna antolatu du egun horretarako. Ekitaldiak Jai Alai frontoian izango dira, eta eguerditik goizaldera arte, egitarau zabalaz gozatzeko aukera izango da. Haste-ko, 11:00etan frontoiaren ateak zabaldu eta goiz osoan umeei zuzendutako ohe elastikoak, aurpegiak margotzeko tailerrak eta egurrezko jolas tradizionalak egongo dira; halaber, txosna ere zabalduko dute eta pintxoak saldu; tonbolan jokatu eta artisauek



Kontzertuetarako (22:30) sarrerak 7 euroan daude salgai.

egindako arropa erosi ere ahal izango dute bertaratuko direnek. 13:00etan, Txuski eta Txurruski pailazoak gazte-txoakaz jolastuko dira. Ordu eta erdi beranduago triapak beteko dituzte herri-bazkariagaz, eta, ondoren, Fermin Balentzia kantautoreak bazkalondoa

alaituko du. Arrastiko 19:00etan, ber- rriz, herriko kaleak kolorez beteko dituzte kalejira musikatuagaz. Gauean, 22:30ean kontzertuak hasiko dira: Arkada Social, Skakeitan eta Akerbeltz taldeakaz. Sarrerak 7 euroan eskura daitezke alde zurretik. ◀

Beste urrats bat eman dute memoria historikoaren alde

Sinbologia frankistari buruzko mozio bat onartu zuen Udalak martxoan egindako osoko bilkuran, EH Bildu eta EAJren aldeko botoakaz; Independententeak abstenitu egin ziren. Mozioa Plentziako Oroilore Ikerketa Taldearen izenean aurkeztu zuen EH Bilduk. Idazkiak erreferentzia egingen zien udalbatza-aretoaren sarreran oraindik eskegita dauden Primo de Rivera eta Francisco Francoren diktadura garaietan alkate izan zirenen argazkiei, baita 1968an eta 1970ean Udalak erregimen frankistaren bi ordezkariari eman zizkien urrezko dominei ere: Fernando Ibarra Lopez-Doriga Bizkaiko Foru Aldundiko presidentea eta Jose Lacalle Larraga Aireko Ministroa. Horrez gainera, beste izendapen batzuk direla-eta atzera egitea ere eskatu dute, hala nola aipatutako pertsonen hiribilduko seme kutunaren titulua kentzea. ◀

Berango

Proiektu nagusiak baloratzeko inkesta abiatu du Udalak

Udalerrian aurrera eroaten dabilen proiektuen gaineko iritziak batu gura ditu Udalak. Horretarako, auzotarren iritziak jasotzeko inkesta abiatu dute, herritarren parte-hartzea bultzatze aldera. Udalak etxetik etxera banatu ditu aipatutako inkestak; udal webgunetik ere bete daitezke galdera guztiak. Inkestan, Udalak proiektuen informazioa eta horiek egiteko bideratutako aurrekontuak azaltzen ditu. Informazio horregaz guztiagaz, auzotarrek proiektu eta ekimen horiek baloratu behar dituzte, 1etik (oso txarra) 5erako (bikaina) balorazioa-



kaz. Galdeketa horretan mota askotako proiektuak balioztzen dira, besteak beste: HAPO eta Santa Ana auzoaren urbanizazioa. ◀

Info+: www.berango.net

Urduliz

Hurrengo urtera arte ez da ospitalea zabalduko

Osakidetza 2016ra arte atzeratu-ko du Urdulizko Alfredo Espinosa ospitalearen inaugurazioa. Hala jakinarazi zuen Javier Bilbao bertako alkateak, martxoaren 30ean aipatutako eraikinaren obrak bisitatu ostean. Bisita hori alkateak berak eskatuta egin zen, bertatik bertara jakin gura izan duelako zelan doazen obrak; Jon Etxeberria Osakidetzako zuzendari nagusia ere bertaratu zen. Alkatearen arabera, «normala da mota honetako azpiegitura bat modu antolatuan eta apurka zabaltzea». Horren albotik, adierazi duenez, «Urdulizko eta ingu-



ruetako herritarrek eta Osakidetzako profesionalak zerbitzu honetara egokituz joan behar dugu». Ospitalea Getxo eta Mungia arteko auzokideak artatzeko eraiki dute. ◀

berezi
Hamburguesas Bocatas
Hanburgesak Ogitarakoak
Sandwiches Platos combinados
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA, 34 48640 - BERANGO
PEBIDOS: 946 681 064 (PARA RECOGER EN LOCAL)

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arituz z.g. • T.F. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Taberna Berrí
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

GURE ETXEA
taberna
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA
lacofris
MARKA GUZTIAK
24 ORDUTAN ERANTZUNA
3 HILABETEKO GARANTIA
IRTEERA DOAN
Tf. 94 430 52 00 - KASUNE 18 - ALGORTA
www.lacofris.es - sat@lacofris.es

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Uribe Kosta

Eskualdeko hautagai jeltzaleak

EAJk Uribe Kostako zerrendaburuak aurkeztu zituen domekan Sopelan. Eurakaz batera egon ziren Itxaso Atutxa eta Unai Rementeria Bizkaiko ordezkariak.



EAJko Joseba Goikuria Eradiorako alkategaia ez dago argazkian; Txorierrikoan egon baitzen. © EAJ

Pasa den domekan, hilak 12, maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako eskualdeko alkategaiak aurkeztu zituen EAJk. Alderdi jeltzaleak udagoiengan abiatutako herriz herriko aurkezpenei eta agerraldiei jarraipena eman zien, euren zerrendaburuek «inor bidean utzi barik» Uribe Kosta «hazi araziko» dutela aginduz.

Bertan izan ziren gaur egun alkate diren Maria Isabel Landa (Berango), Imanol Landa (Getxo), Arantza Etxebarria (Gorliz), Mari Carmen Urbietta (Leioa), Unai Andracka (Lemoiz) eta Javier Bilbao (Urduliz). Joseba Goikouria erandioztarrak ez zuen ekitaldian parte hartu, jeltzaleen tradizioei jarraituz Txorierriko eskualdean parte hartzen baitzuen. Aipatutakoakaz batera izan ziren Roberto Muñoz (Barrika), Elxabete Uribarri (Plentzia) eta Gontzal

Hermosilla (Sopela) zerrendaburu berririk; Itxaso Atutxa Bizkaiko Buru Batzarreko presidentea eta Unai Rementeria Bizkaiko ahaldu nagusirako hautagaia ere alboan izan zituzten. Ekitaldia Sopelako udaletxearen ondoko plazan egin zuten. Plentziakoagaz batera, maiatzaren 24ko hori ere berreskuratu gura dute jeltzaleek.

Bederatzi zerrendaburuek «ondo baino hobeto dakite udal politika zer den», jeltzaleen arabera, gehienak euren herrietako alkate direlako edo hainbat legegintzalditan zinegotzi izan direlako. Mari Carmen Urbietta Leioako alkatearen kasuan, lehenengo aldiz pasatuko da hautetsontzietatik, Eneko Arruebarrenarengandik aginte makila eskuratu baitzuen. Bestalde, EAJk protagonismo handia eman zion Gontzal Hermosillari, Sopelako «alternatibatzat» joz. ◀

Uribe Kosta

Osasuna hobetzearen alde, herri-ibilaldia egingo dute

Zapatu honetan, hilak 18, herri-ibilaldia egingo dute Uribe Kostan barrena, ohitura osasuntsuak bultzatzeko asmoz. Jubibarrrika elkarteak antolatutako jarduera hori doakoa izango da, eta ibilbidea Barrrikako udaletxe ondoko plazatik abiatuko da, 9:30ean, ondoren Barrika, Gorliz eta Plentzia zeharkatzeko. Adin guztiei zuzendutako ekimena denez, ibilbide bi antolatu dituzte: lehenengoa, 16,6 kilometrokoa; eta bigarrena, 3,1 kilometrokoa. Bigarren hori 12:00etan hasiko da, aurrekoaren leku beretik. Ibilbideak amaitzean parte-hartzaile guztiek Yoga saio batez gozatu ahal izan-



Osasunaren Jaiaren ekimenetako bat da hau.

go dute. Ekimen honetan parte hartu gura duenak alde aurretik eman dezake izena Barrika, Gorliz edota Plentziako kultur etxeetan; egun berean ere aukera egongo da. ◀

Lemoiz

Ariketa abdominal hipopresiboen ikastaroa martxan da

Ariketa abdominal hipopresiboak azelan ondo egin ikasteko tailerra antolatu du Udalak. Parte hartu nahi dutenek alde aurretik eman behar izan dute izena, bertako kultur etxean, 80 euroren truke. Guztira zortzi saio egingo dituzte, bakoitzari ondoen datorcion ordutegian: astelehen goizean 10:15etik 11:15era, astelehen arrastian 18:00etatik 19:00etara, edo barikuetan 10:15etik 11:15era. Hilaren 13an hasi ziren asteleheneko goizeko eta arrastiko saioak; barikukoak, ostera, hilaren 17an hasiko dira. Ikastaroa Maite Onaindia zoru pelbikoko fisioterapeutak emango du. ◀

Lemoizko Gure Esku Dago taldea berriro martxan da

Iaz egin zen giza-kate arrakastatsua. Iren ondoren atsedena hartu eta gero, Lemoizko Gure Esku Dago taldea indarberrituta hasi da berriro ere lanean «Erabakia #ehuntzen» ekimena aurrera eramateko asmoagaz. Hurrengo asteetan zenbait ekitaldi antolatuko dituzte ekimena herrian zabaltzeko asmoz, esaterako: *Jostunak* dokumentalaren proiektzioa eta *Ehuntze Eguna*. Ekimen horren aldeko atxikimenduak jasotzen hasi dira daborduko, baina aurrerantzean lan horretan ere sakonduko dute Lemoizen, ahalik eta oihal gehien josi ahal izateko. ◀

Info+: gure.esku.dago.lemoiz@gmail.com



aitxu!
sopelan euzkeraz bizi



berba lazan



Berango 21
Guztira berangoak
Un compromiso común



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Euzkara Bala



LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

16 urtetik gorako edonork parte har dezake.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, eta egileak adierazi beharko du zein den aukeratu duena (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatzita).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo edozein euskalkitan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa, haikua e.a.).

sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidaliko dira testuak:
argi.hizkiak@gmail.com • 685 732 963

Bi kategoria izango ditu lehiaketak:

Labur-laburra: 160 karaktere gehienez
Laburra: 100 hitz gehienez.



**ARGAZKIAK IKUSTEKO
ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK**

www.argihizkiak.com
info+: argi.hizkiak@gmail.com
t: 685 732 963

www.argihizkiak.com

Argihizkiak lehiaketa martxan da

Argazkietan oinarritutako testu laburren lehiaketara daborduko idatziak aurkez daitezke, maiatzaren 15era arte. Eskualdeko hamar argazkilariren lan bana dira gaiak.



Pasa den urteko irabazleak eta sari-banatzailak erakusketaren inaugurazioan. ARGIHIZKIAK

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Argiaren eta argia oinarri duten Teknologien Nazioarteko Urtea izendatu du 2015a. Hori ere aitzakia hartuta, Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta HIRUKA komunikazio-taldeak Argihizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketaren IV. edizioa antolatu dute, 'fotografia' edo 'argazki' berbek «argiaz marraztea edo idaztea» baitute jatorrizko esangura. Hala, aurten ere argien eta hizkien hizkuntzakaz jolastea proposatu diete uribekostarrei. Bidelagun dituzte Leioa, Berango eta Getxoko udalak, Uribe Kostako Mankomunitatea, Berbots, Bizarra Lepoan eta Aitxu! elkarteak eta Leioako berbalagunak. Jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatu gura dute, eskualdeko argazkilariak eta euren lana sustatzea eta zabaltzeagaz batera. Uri-

bekostarrak diren edo bertan bizi diren hamar argazkilariren lan banean oinarritutako testuak idatzi beharko dituzte parte-hartzaileek. Ekarpena egin duten fotoafoak honakoak dira: David Herranz, Marisol Ramirez, Luis Jauregialtzo, Ines Bermejo, Sonia Aoujil, Nerea Falagan, Marta Iraurgi, Ivan Viña, Patricia Merino eta Itsaso Bartolome.

Lehiaketan kategoria bi daude: testu labur-laburrak (160 karaktere gehienez) eta laburrak (100 hitz gehienez). Sariak 200 eurokoak izango dira. 16 urtetik gorako edonork parte har dezake, gura duen testu mota erabiliz. Lehiakideek gehienez testu bi bidali ahalko dituzte, batueraz edo euskalkiren baitan. Lanak sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidal daitezke, maiatzaren 15era arte. ◀

Info+: Argihizkiak.com

Nora bidali: argi.hizkiak@gmail.com / 685 732 963

Euskararen arnaguneez hausnartuko dute Getxon

Azebarri kultur elkartea bueltan dator, eta ez edozein modutan, gainera. Azken hileotan barne lanetan murgilduta ibili ostean, proposamen garrantzitsua egingo diete Algortako eta eskualdeko euskaltzaleei. Hilaren 22an, eguaztena, 19:30ean, Ekin tabernan, *Euskararen arnaguneak, erabileraren erronka* gaitzat hartuta, kafe-berbaldian jardungo dute Mondragon Unibertsitateko irakasle Jon Sarasuak, EHUko irakasle Josu Amezagak, Aiora Zulaikak (*Piritx*) eta Mertxe Rodriguezek (*Mari-motots*).

Oraintsu Azebarriren web gunean

Amezagak gogoratu duenez, Getxo udalerrian 22.000 bat euskaldun bizi dira, biztanleriaren %28. Euskaldunok kopuruan hazteagatik datua «pozgarriztat» jo arren, erabilerari dagokionez «arazo larri bat» planteatzen duela dio irakasle algortarrak. Izan ere, «euskaldunak inoiz baino sakabanatuago daude erdaldunen artean», dioenez. Era bikoitzean, gainera, udalerrian ematen den sakabanatzeari askotan etxeetakoa ere gehitu behar baitaio. Euskaraz bizi ahal izateko, erabakia eta Azebarri moduko harreman sareak behar direlakoan dago. ◀

Info+: Azebarri.eus

Fermin Balentzia kantari ibiliko da barikuan Plentziako Kristo basilizan

Plentziako Kantagune elkarteak antolatuta, barikuan Fermin Balentzia kantautore nafarra lagun artean ibiliko da kantari. Arrastiko 19:00etatik aurrera, Kristo basilizan laztanduko du gitarra, galtzaileen memoria eta testigantzak plentziarrakaz partekatuko. Eliza lagata, tabernaz-taberna ibiliko dira gero, kantu-jiran. Azkenik, 22:30ean afari-legea beteko dute frontoian daborduko izena eman dutenek. Tokiak agortu direnez, jada ez dago txartela eskuraterik. 1948an «Valencia» abizenaz jaiota, Iruñerriko Getze herrian bizi da, arbasoen «Balentzia» abizena berreskuratuta. ◀

Domekan Plentzia izango da ibilgailu klasikoan abiapuntua eta helmuga

Apirilaren 19an, domeka, Plentzia izango da Bizkaiko ibilgailu klasikoan 4. birako protagonista. Goizeko 10:00etan, Astillero plazan batuko dira dozenaka auto, motor eta bestelako garraio mota zahar baina dotoreak. Harribitxi horietaz harro dauden jabeek 225 bat kilometro egingo dituzte toki berera heltzeko, Bizkaian ez ohiko ikuskizuna emanez. Plentziatik Unbe-ko errepeidea hartu eta Rontegi zubitik utziko dute Uribe Kosta. Zallan gosalduta eta Urduñan bazkaldu ondoren, atzera bueltako bidea hartuko dute Mungiatik Plentziara. ◀

Info+: Plentziaclassic.com/index.php/eu

Apirilaren 15etik maiatzaren 15era

argihizkiak

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO TESTU LABURREN IV. LEHIAKETA



hirukagenda

Uribe Kostako astekarria

2015eko apirilaren 16tik apirilaren 22ra arte



hiruka.eus



ERANDIO

Kanpomentxo eta Ruper, Erandioigoikoan gozagai

Baseritarren antzinako festa Erandioigoako hartuko du domekan, bertako Goi-Alde dantza-taldea mende erdia ospatzen dabilen urtean. Jaia berreskuratu zenetik 21. edizioa den honek menu bikoitza ekarriko du, gainera. Zapatuan, Ruper Orderika abeslariak *Lurrean etzanda* disko berria aurkeztuko du, 20:30etik aurrera. Ekitaldia doakoa izango da,

Erandioigoikoko jaiak ospatzen diren plazan. Domekan, euskaltzaleen festa goizeko 11:00etan hasiko da, Roberto Etxebarriaren trikiti-doinuz. Egun osoan, umeentzako jarduerak, taloak, trikitilariak eta txosna izango dira. 12:00etan, dantzarien txanda izango da. 13:00etan, Mendibaiarte abesbatzak kantatuko du, Jone Uria eta Anjel Mari Peñagarikano ber-

tsolarien saioa hasi aurretik. Herri-bazkaria 14:30ak aldera izango da. Arrastiko plana 16:00etan abiatuko da, kuadrillen arteko herri-kirolen lehiagaz. Gero, 17:00etan, Gautxoriko dantzari trebeenetako batek bertarututakoak dantzan jarriko ditu. Arrastiko 17:00etan Irrien Lagunen ikuskituna izango da. Akabuan, 18:00etan Luhartz erromeria-taldeak joko du. ◀

2015/04/16 - ordua: 12:30

Hipertension, diabetes, asma... berbaldia

Sertutxena eraikina | Gortiz
Gortizko osasun-zentroko adituak. Doan.

2015/04/16 - ordua: 18:00

Ipuinaren ordua

Gobelako liburutegia | Getxo

Habia una vez... y mentira no es saloa, Carlos Saezekin. 3-6 urte arteko umeentzat. Sarrera doan, aretoa bete arte.

2015/04/16 - ordua: 19:30

Burdin hariak eta plastikozko koilareak olerkiak eta musika

Algortako Eztabaida-gunea | Getxo
Oier Gonzalez eta Markel Ormazabal preso ohiek kartzelaren eta gaitibuen egun erokotasunaz jardungo dute, film-irudiz eta kantuz lagun duta.

2015/04/16 - ordua: 19:45

Literatur solasaldia

Algortako Kasinoa | Getxo
La fiesta de la insignificancia (Milan Kun dera) liburuz. Espainolez. Doan, aretoa bete arte.

2015/04/16 - ordua: 20:00

Gintonic rock-taldea

Silver's Tavern | Getxo
Getxo Zuzen ean ekimena. Sarrera doan.

2015/04/16 - ordua: 20:00

Erdibana antzezlan

Altzagako azoka zaharra | Erandio
Txalo Produktzioak taldea. Euskaraz izango da. Sarrera doan, eserlekuak bete arte.

2015/04/17 - ordua: 12:00

Alimentacion y ejercicio fisico berbaldia

Sertutxena eraikina | Gortiz
Javier Sierra Aldundiko kirol medikua eta Xanti Perez kirol teknikaria. Sarrera doan.

2015/04/17 - ordua: 17:00

Zirku-tailerra

Kiroldegiko pabiloia | Gortiz
4 eta 10 urte arteko umeentzat. Sarrera doan.

2015/04/17 - ordua: 20:00

Erabakitze eskubideari buruzko mahai-ingurua

Josu Murrueta kultur etxean | Erandio
Gure Esku Dagok antolatuta. Inaki Zarragoa eta Laura Mintegi mintzatuuko dira. Sarrera doan.

2015/04/18 - ordua: 13:00

Sakabanaketaz kalean

Telletexe plaza | Getxo
Algortako Sarrekin. Dispersioaren liburuak irakurri eta jasotzeko aukera izango da.

2015/04/18 - ordua: 14:30

Euskarabazkaria

Bidebarte txokoa | Getxo
Egizui-k antolatuta. Aurretik izena eman behar da: egizuigetxo@gmail.com edo 6.44.277.15. Sarrera: 10 euro.

2015/04/18 - ordua: 16:30

Haur eta gazte jarduerak

itzubaltzetako Santa Eugenia plaza | Getxo
Izabal Txiki aisia-elkartearen lehenengo saioa. 5 eta 15 urte bitarteko neska-mutilentzat. Doan.

2015/04/18 - ordua: 19:00

Kontzertu didaktikoa

Berango Antzokia | Berango
Impromptu taldeak Johannes Brahms-en lanak joko ditu. Espainolez. Sarrera: euro bat.

2015/04/18 - ordua: 20:00

Rock kontzertua

Xurru | Gortiz
Etorrizun Beltza, Knives eta In Thousand Lakes taldeen emanaldia. Sarrera: 3 euro.

2015/04/18 - ordua: 20:00

Novecento, el pianista del oceano antzezlan

Andres Isasi musika-eskola | Getxo
Miguel Rellanegaz. Sarrera: 15 euro.

2015/04/18 - ordua: 20:00

Mejor viuda que mal casada antzezlan

Josu Murrueta kultur etxea | Erandio
Txalo Produktzioak taldea. Sarrera: 5 euro (udaletxean eta kultur etxean).

2015/04/18 - ordua: 20:30

Epaiketa-gastuak kitatzeko kontzertua

Udondo gaztetxea | Leioa
Vomitando desperdizios, Rombos Negros eta Ectoplasmas taldeek joko dute. Sarrera: euro bi.

2015/04/18 - ordua: 21:00

Rock kontzertua

Sentinel | Erandio
Inmolados eta La Mordida taldeak. Doan.

Umeek euren Eguna ospatuko dute

Barrikako 5 eta 12 urte arteko neska-mutilek Haurraren Egunaz gozatuko dute barrikuan, aurretik izena emanaz gero. Ipuinak eta eskulanak izango dituzte liburutegian, 18:00etatik aurrera. ◀


Info+: 946 775 163 / liburutegia@barrika.net

Gazte itzubaltzetarren jaialdia, Kalezulon

«Har ezazu gaztetxearen giltza» goiburupean, Itzubaltzetako Gazte Asanbladak festa antolatuko du zapatuan Erandion. 21:00etatik aurrera, Iheskide, Siroka eta Guda Dantza taldeek joko dute. Sarrera 5 euroan eros daiteke. ◀

Abesbatzen errezitaldia Algortan

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak antolatutako Udaberriko Kontzertuen barruan, zapatuan 20:30ean hasiko dira kantuan Gorrondatxe (Algorta), Mumarrin (Sopela) eta Iraunkor (Plentzia) abesbatzak, Algortako San Martin elizan. ◀



Sopelan pilota Txapelalduna, dantzan

Organik dantza-talde getxoztarrak, Kepa Junkera musikariak eta El Pont Flotant konpainia valentziarrak *Txapelalduna* dakarte. Bertan, euskal pilotako irabazle baten arrakasta-bizipenak ikusi ahal izango ditugu, bakardade, presio, beldur eta ahultasunagaz batera. Hunkituz, ironiaz. ◀

Noiz: Apirilak 17, barikua, 20:00

Non: Sopelako Kurtzio Kultur etxea

Sarrera: 3 euro

Gogoeta bultzatzen du *Txapelalduna*-k: zeigatik irabazi gura dugu beti?

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

Rock-kontzertua

Xurrut | Gortiz

Chivo, Luppulo eta Melmak taldeak. Bost euro.

2015/04/17 - ordua: 20:30

Cualquiera que nos viera antzezlan

Kultur Leioa | Leioa

Trebiñuko Zanguango Teatro taldea. 10 euro.

2015/04/17 - ordua: 18:00

Zine-foruma

Erandioko Emakumeen Elkartea | Erandio

Filma, solasaldia eta mokadua. Espainolez. Doan.

2015/04/17 - ordua: 21:00

Mil veces, buenas noches filma eta zine-foruma

Andres Isasi musika-eskola | Getxo

16 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90 euro.

2015/04/17 - ordua: 21:00

Jostunak filmaren emanaldia

Armitzako portuan / kultur etxean | Lemoiz

Gure Esku Dagok antolatuta. Sarrera doan.

2015/04/18 - ordua: 09:00-14:00

Haziei buruzko ikastaroa

Aldai Patronatua / Moreagako sOrtua | Getxo

Eguzi, Aitxul, Berbois eta Aritz Soroa taldeek antolatuta. Izena emateko: 644 277 155 edo egizugebo@gmail.com. Matrikula: 12 euro (langabetuak, doan). Teoria Aldain izango da, eta praktika, Moreaga estratako ortuan.

2015/04/18 - ordua: 09:00

Bizikleta-irteera

Fadurako parkina | Getxo

Egizuko bizikleta-taldeak antolatuta. Irteera: Meatze-bideetatik. Izena emateko: 644 277 155.

2015/04/18 - ordua: 10:00

Bizikletak konpontzeko ikastaroa

Urko kiroldegia | Sopela

Doan. Izena emateko: kirolak@sopela.eus

2015/04/18 - ordua: 11:00etatik gauera arte

III. Kandela Eguna

Jai Alai frontoian | Plentzia

Kandelaria kultur elkarteak antolatuta. Umeentzako jarduerak, herri-bazkaria (aurretik izena eman behar da), Fermin Balentzia, kalejira musikatua, eta Arkada Social, Skakeitan eta Akerbelitzen kontzertua.

Sarrera: 7 euro aldeaz aurretik eta 10 euro bertan.

Ortu komunitarioen aurkezpena

Tosuko landa | Getxo
Doan.

2015/04/19 - ordua: 11:30-14:30

Fitness-eskola irekiak

Jauregizar plaza | Sopela

Doan.

2015/04/19 - ordua: 17:00

La montaña magica filma

Andres Isasi musika-eskola | Getxo

Adin denentzat. Sarrera: 2,10 euro.

2015/04/19 - ordua: 18:00

Kontzertu familiarria

Kultur Leioa | Leioa

Rock'n'kids taldea. Sarrera: 5 euro.

2015/04/19 - ordua: 19:00

Sor-prendidas antzezlan

Josu Murueta Kultur etxea | Erandio

Aztiak taldea. Sarrera: 2 euro (aurretik).

2015/04/21 - ordua: 18:00-20:00

Autoestimu tailerra

gurasoentzat

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Apirilaren 17a baino lehen izena eman behar da: preven@uribekosta.org. Doan.

2015/04/21 - ordua: 19:00

Independentsia eta internazionalismoa: nola eta zertarako?

argazki-erakusketa-berbaldia

itzubaltzeta / Romoko kultur etxea | Getxo

Ernaren eskutik. Maitane Nerekan (EH Bildu), Jon Arako (Ema) eta Gabi Basañez (Askapena) mintzatuko dira. Sarrera doan.

2015/04/21 - ordua: 20:00

Ida filma

Kultur Leioa | Leioa

Peiseo zine-foruma. Espainolez. 2,50 euro.

2015/04/22 - ordua: 19:00

Novela negra: la realidad social bajo la lupa de la ficcion literatura-berbaldia

Villamonteko Kultur Leioa | Getxo

Jon Aretxe eta Miguel Pajares idazleak mintzatuko dira, Roge Blasco kazetariak moderatuta. Sarrera doan, eserlekuak bete arte.

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



«Eskulturak egiten emandako 60 urteak izan dira nire ikasbidea»

Jose Luis Butron (Bilbo, 1933) eskultoreak 200 artelan baino gehiago dauzka mundu osoan barreatuta; Uribe Kosta eta bereziki Getxo ez dira salbuespen. Besteak beste, berea da Algortako Portu Zaharreko sardina-saltzailearen irudia.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Eta Butronek berak berreraiki zuen Getxoko Andra Mari eliza. Martxoaren 6an Aixé Getxo! saria jaso zuen bertoko Udalaren eskutik, algortartutako begoñatarrak izandako ibilbide profesional eta artistikoa goraiapatuz.

Hainbat idatzitan Jose Luis F. Butron izena aurkitu dugu; zu zara ezta?

Bai, pertsona bera dira, ni neu. Nire lehen abizena Fernandez da, baina Bilboko La Salle ikastetxean, izen eta abizen berberak genituen bi lagun elkartu ginen. Bertakoek erabaki zuten niri Butron deitzea, eta besteari, Fernandez.

Bilbon jaioa, ia bizitza osoa Algortan eman duzu.

Hala da. 1933an jaio nintzen Bilbon, eta handik hurbil Begoña auzoan hazi. Esango dizue: «Begoña ere Bilbo da». Hala ere, lekuak lekuak dira.

Hamalau urtegar hasi zenituen arte-ikasketak Bilboko arte-eskolan.

Bilboko Berreginen Museoan hasi nintzen ikasten, Berastegiko eskoletako beheko alde osoa hartzen zuen museoak. Izugarri handia zen zentroa. Gaur egun Justizia Jauregia dugu bertan. Gehienbat marrazten eta eskultura oinarritzko ezagutza gutxi batzuk baino ez nituen ikasi. Izan ere, institutu bateko irakaslea izan zelako eroan ei zuten bertara egokitu zitzaigun maisua; eta eskulturaz ezer gutxi zekien. Gauzak horrela, Bartzelonara joatea erabaki nuen.

Bertan nireganatu nituen ezaguera gehienak. Hala ere, lanari emandako azken 60 urteei esker ikasi dut gaur egun dakidan dena. Falangistakaz ere eduki nituen tirabirak Berreginen Museoan nengoela.

Zer diozu? Tirabirak falangistakaz?

Astean behin joan behar izaten ginen Uribitarte pasealeku inguruan itsasadarretik gertu zeukaten egoitzara. Ez nekien, eskailerak igo bezain laster, Fran-

“Zorionez, lana ez zait inoiz falta izan. Opor barik 25 urtean egon nintzen, hartzeko denborarik ere ez neukalako”

co eta Jose Antonioren argazkiei egin behar zitzaie la agur; eta bertoko falangistek hirutan ibili ninduten gora eta behera. Museora bueltatu nintzenean, irakasleari esan nion bueltatzeko asmorik ez neukala eta hori egiteko betekizuna izatekotan zentrotik botatzeko; kontuak ez zuen okerrera egin.

Bartzelonara joatea erabaki zenuen 1948an?

Bartzelonako Arte Eskolan bost urtez egon nintzen. Bertan, Josep Clará handiak hautatu ninduen bere

estudio partikularrean laguntzaile izateko. Zura, harria eta beste materialak lantzen erakutsi zidan.

Ikasketak amaituta, Bilbora itzuli zinen.

Halabeharrez bueltatu behar izan nuen, zerbitzu militarra egitera. Zorrotzan eduki ninduten. 22 urte izango nituen... Argi eta garbi esan nion lizentziatu ninduen sarjentuari, guztiz harro nengoela bigarren mailako soldadu txar izateaz; ez bainuen guardiarik, ez korrikarik, ezta ezer ere egin bertan. Ostean, Bilbotik Bartzelonara eta handik hona ibili nintzen sasoi batean.

Noiz hartu zenuen eskultura ogibide?

1952an, berriro ere Bilbon, Espartero kaleko San Franzisko Xabier elizarentzat egurrezko kristoa egin nuen. Hasierako urte haietan Bizkaiko zenbait arkitekto gaz egin nuen lan; Espartero kaleko kristoa egiteko, Pedro Ispizuagaz. Santutxuko amaetxean, ostera, marmolezko aingerua egin nuen. Eraikin hori Solokoe-txen zegoen, Larrinagako kartzela zegoen lekuan.

Zelan ezagutu zenuen Jorge Oteiza?

Garai hartan, zeramikaz egindako eskulturan jarri nuen arreta. Zeramika industrialia egiten zuen Bilboko Zabalbide auzoko «Monolito» fabriketan ikasteko aukerarik ematen zidaten galdetu nuen eta bertan egon nintzen lau hilabeteetan. Zeramikagaz lotutako labe, berniz, collage, pasta eta antzekoak ikasi nituen. Eta fabrika horretako arduraduna ezagutu nuen, Jorge Oteiza bera. Pertsona jatorra, benetan.



Eskualdean

Santutegi eta parrokiak

- Ama Birjinaren Felix Aitaren kriptak, Algortako Trinitarioen parrokiak (Getxo).
- Kristoa eta Ama Birjina, egurrez landuak, Leioako Domingotar mojentzat (Leioa).

Armarriak

- Getxoko armarria, Andra Mari ko batzokian.

Monumentuak eta eskulturak

- Arrosa-leiho formako eskultura, Ondizko elizan (Leioa).

Udalerri eta enpresak

- Sardina-saltzailearen oroimenezko eskultura, Algortako Portu Zaharrean (Getxo).
- Eskultura, Areetako Ganeta plazan (Getxo).
- Medikuntzaren jainkosaren eskultura, mediku-etxearen fatxadan (Berango).
- Sabino Aranaren eskultura, brontzez landua, izen bereko plazan (Urduliz).
- Amezaga doktorearen eskultura, Ereagako hondartza ondoko parkean (Getxo).

Zaharberitze eta eraberritzeak

- Andra Mari parrokiak 1965-1970 (Getxo).

Gurutzadurak

- Algortako Erredentore elizako gurutzadura (Getxo).

Bertan hasi zen eskultura abstraktuak egiten?

Azkar batean hainbat lan egiten zituen, baina inor txok ere ez zuen ezagutzen haien esangura. Landutako eskultura denak erakusketak egin zuen Oteizak Bilboko [lehengo] *Tintoreria* kaleko lehenengo solairu batean. Inaugurazio-ekitaldira gonbidatu ninduen, eta, han geundela, agur arranditsua egin zidan Oteizak. Baina, hango hura ez zetorren bat nire izaeragaz, eta alde egin nuen bertatik. Aretoa jendez gainezka zegoela gogoratzen dut. Orduetik aurrera arrastoa galdu nion Jorge Oteizari.

Munduan barreiatuta 200 artelan baino gehiago daukazu. Zelan definituko zenuke zure estiloa?

Bai. Artelanak egin ditut Alemanian, Frantzian, Portugalen, Puerto Ricon... Estiloari dagokionez, eskultura klasikoak egiten ditut. Hala ere, tarteka egin izan dut abstrakturen bat, barbarako, Areetako Ganeta plazako iturrian dagoen irudia. Bestalde, Valentzian, burdinazko eskultura egin nuen Mediterraneo ko Labe Garaientzat.

Artelanetako asko erlijiosoak dira, ez denak baina asko bai...

Batzuk erlijiosoak dira, baina beste batzuk ez. Algortako Portu Zaharrean ikus daiteke nik egindako sardina-saltzailearen eskultura. Colindresen (Asturias), ostera, *Amerikaren aurkikuntzaren bosgarren mendurrena* aurkituko duzue; elkarri lotutako hamaika figura dira, biluzik, biribila osatuz.

Horrenbestez, biluziak gustuko dituzu; halako hainbat lan dituzu ezta?

Melillarako ere lau irudi biluzik eta pentsalari baten eskulturak ere landu nituen. Beti gustuko izan dut biluziak egitea, lan horietan antzematen direlako xehetasunak. Eskultura bat buruan daukazunean buztinean egin behar duzu lehendabizi, horren azterketa egite aldera. Bertan antzematen dira besoen, zangoen, gorputzaren... xehetasunak.

“ Iluso handiz hartu nuen Aixe Getxo! saria. Beste inon baino askoz urte gehiago daroatzat Getxon bizitzen ”

Enkarguz egin dituzu artelan denak?

Ez dut inoiz erakusketarik egin, batez ere gaztetan lehiaketa batean izan nuen dezepzio handiagatik. Eta zorionez ez dut erakusketak egiteko beharrik izan. Kontua da 18 urte nituela eskultura lehiaketa egiten zutela Bilbon bost urtean behin; eta aurkeztea erabaki nuen. Handik gutxira etxera deitu zidaten euren gana joateko esanez, sariketa irabazi nuelako. Agertu nintzenean, lehenik eta behin, zenbat anaia-arreba nituen galdetu zidaten. Nik bakarra

nuela erantzun nien eta ingeniari-tza-ikasketak hasi behar zituela esan. Zera erantzun zidaten: «ba, orduan, gehien behar duen beste honi emango diogu saria». Desengainu handia hartu nuen.

Zelan egin duzu horrenbeste lan?

Egia da, lanik ez zait inoiz falta izan. Opor barik 25 urtean egon nintzen, hartzeko denborarik ez neukalako. Txikia nintzela, Bilbon bazen Jose Luis Pitarque izeneko tipo bat; lotsabako galanta, ezkontza-gonbidapen barik joaten zen ospakizunetara... Morroiak zera esaten zuen: «lan egiten duenak besterako balio ez duelako da». Beraz, lanerako baino ez dut balio.

Zer esangura dauka zuretzat Aixe Getxo! saria jaso izanak bertoko Udalaren eskutik?

Batetik, aipatuko nuke nire harremana Getxogaz Andra Mari elizaren zaharberitzeagaz hasi zela. *Aixe Getxo!* saria jaso gabe ere nabaritu izan dut bertoko enker ona. Urte hauetan guztietan Udalak enkargu asko egin izana niretzat bada aitortpena. Hala ere, ilusio handiz hartu nuen saria. Egia da Bilbon jaio nintzela eta begoñarra naizela, baina daborduko urte asko da Getxon bizi naizela; beste inongoa baino askoz ere getxoztarragoa naiz.

Daborduko ez duzu eskulturarik egiten?

Utzi behar izan nuen, geratzen zaizkidan urteak (pre-sarik ez daukat) ahalik eta ondoen pasatzea gura dudalako. Oporrik ez dudanez eduki. ◀

Harri gainean zizelkatutako historia

Andra Mari elizari estimu handia dio Jose Luis Butron eskultoreak. Tenpluaren zaharberritze-lanek ekarri zuten begoñarra Getxora, eta ordutik bertan bizi da. Eliza konpontzeaz gainera, kanpandorrearen atzealdeko fatxadan inguruko baserrien armarriak jarri zituen.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Ez dira gutxi Jose Luis Butron eskultoreak Uribe Kostan eta bereziki Getxon egindako arte-lanak. Bazenekien, besteak beste, Algortako Portu Zaharreko sardina-saltzailearen irudia, Areetako Ganeta plazako eskultura abstraktua edota Urdulizko izen bereko plazan jarritako Sabino Aranen brontzezko bustoa bere eskuek landuak direla? Ez litzateke lar esatea, Getxon, edonora begira ere Butronek zizelkatutako harriren bat topa dezakegula. Baina, berak gogoratzen duenez, Getxoko Andra Mari elizaren zaharberritzeak ekarri zuen udalerrira artista begoñarra, eta ordutik bertan bizi da.

Francisco Antxustegi parrokoaren ekimenez, 1968 eta 1973 artean goitik behera eraberritu zuten erortzeaz zegoen Andra Mari eliza. Butronen lagun min Candido Arrietararen Berangoko baserrian tailerra jarri eta lanari ekin zioten. Beste askoren artean, gurutze-bidea, sagrarioa, hiletariei dedikatutako obeliskoa (kanpoan), bobeda, Ama Birjinaren irudiaren zaharberritzea... egin zituen algortartuta-



ko eskultoreak. Horma bat botata topatutako harri zatiakaz leiho erromanikoa ere jarri zuen elizaren atzealdean, korua ilunegia zelakoan.

Baina bereziki estimatzen ditu Butronek kanpandorrearen atzealdeko fatxadan jarritakoak. Bertan, antzinako kanposantuan zeuden gorpuzkiak jasotzen dituen hezurtokiaren gainean, Butronek Getxoko armarrria zizelkatu zuen, ondoko inskripzioagaz batera: «Etxe onek dira gure izatearen sustraiak, orain gure azufak emen datzaz bakean berdiz kunderen begira. Gu jaunagan gagoz zuzenean». Horren azpian, Getxo herriari gorazarre eginez, XVI. mendetik XIX. mendera bitartean bertan izandako baserri denen armarriak egin zituen harriz landuta, ordena alfabetikoan daude ipinita: Abadean hasi eta Zubiagan amaituz. Horretarako, banan-banan baserri denak ikusi eta bertako armarriak margotu zituen. Hain zuzen ere, martxoaren 6an, *Aixe Getxo!* saria jasotzeko ekitaldian Imanol Landa alkateari berari zuzendu zitzaion Jose Luis Butron, Andra Mari eliza-

***Aixe Getxo!* saria jasotzeko ekitaldian eliza atzealdeko irudi eta izkribuak babesteko eskatu zion Butronek alkateari**

ren kanpandorre atzealdean jarritako irudi eta izkribu horiek denak babes ditzan, «harrian zizelkatutako historia» baitira.


Konponbide erraza

Eskultoreak adierazi duenez, parrokoagaz berba egiten egon ei zen Bizkaiko Foru Aldundiko teknikari bat. Bertoko artelanen garrantzia nabarmendu zuen foru langileak, eta, horren ondotik, «bost gutun bidali ditu udaletxera apaizak, baina ez diote kasurik egin», Butronek dioskunez. Bere berbetan, «hori babestea ez da batere zaila, likido bat ematea baino ez da». «Martikoenako biltegian dauzkaten beharginetako batzuk bertara bidaltzea baino ez daukate, lata eta brotxa eskuan. Diru askorik ez litzaioke aterako Udalari», dio eskultoreak. Horrelako gaiez asko dakituen teknikariak daude udalean, bere ustez.



Bestalde, pasadizo asko utzi dizkigute Getxoko Andra Mari elizaren zaharberritze lanek. Butronek berak estimu handia hartu zion lekuari, «arreta handia» jarri zelako gauza bat edo bestea egiteko. «Dirurik ez zegoen eta fede onez etortzen zen jende dena. Elizaren eskuineko sarreran kaxoi bat jarri zen eta bertan irakur zitekeen handi-handi: 'beldur bari botá'. Jendeak bertan botatzen zuen dirua, eta ez zuen inork ezertxo ere hartzen. Halakorik gertatzea gaur egun...», azaldu du eskultoreak.

Eliz atariko eta gurutze alboko eskaileretako harlauzei dagokienez, Bilboko Gorte kaletik ekarri zituzten. Beste hainbat gauza, osterá, Bizkaiko Bankua eraitsi ostean geratutako harriakaz egin zituzten. Hori jakitean, apaizak esan ei zuen, Gorte kalekoek ez bezala, «mila bedeinkapen emanda ere barkamenik ez» zeukatela bankukoek. ◀





Leioa Saskibaloia Taldea osatzen duten 400 laguneko familiaren buru da Juan Ramon Rodriguez.

«Formazioa izan dugu beti lehentasun»

Leioa Saskibaloia Taldea bere 25. urteurrena ospatzen dabil. Juan Ramon Rodriguez Cueto presidenteak azaldu digu.

Rodriguezek 65 urte ditu. Jubilatuta, banku-langilea izan zen. Klubean sortu aurretik dabil auzolanean, eta presidente 20 urte daroatza. Erreleboaren ordua delakoan dago. Taldeko neska-mutilak prestatzearen alde egin du beti, lehen kaltean. Ez du damurik.

Zelan sortu zen saskibaloia-taldea? Ofizialki 1990ean sortu genuen, baina 1984an daborduko lanean genbiltzan. Txus Gomez lankide eta laguna hasi

zen Sakoneta kiroldegian saskibaloia-klaseak ematen, begirale legez. Txus da sortzailea, berak bultzatu zuen dena, gaia hoberen ezagutzen zuena ere bazen eta. Dena oso naturala izan zen: jendeak jokatzeko bazekien eta zera falta zitzaigun, nesken eta mutilen erreferentzia izango zen taldea. Txusek Bilboko Eskola Klubagaz harreman handia zuenez, eurakaz akordio batera heldu zen, euren talde nagusiak, hirugarren mailan zebilenak, hemen joka zezan. Hori pizgarri izan zen. Gerora etorri ziren txikien talde denak. Akordioa ez zen luzatu, baina Bilboko jokalaria asko hemen gelditu ziren. Harrezkero, harrobia egin da, gaurdaino.

Zenbat jende mugitzen du klubak? Gaur egun dozena bat talde federatu

dugu. Eta ikastetxeak hitzarmenak ditugu, 33 taldeetan oinarrituko kirola lantzeko. Guztira, 400 bat lagun mugitzen ditugu. Saskibaloian, Bizkaiko hirugarren edo laugarren taldea gara. Leioako Udalak emandako sostenguegatik ez balitz, ezinezkoa litzateke.

“ Ekainean saskibaloia kalera aterako dugu, bulebarra saskiz betez ”

Zerk eragin dizue ilusio handien? Txusek eta biok, gazteei erreleboa eman gura diegunok, formazioa izan dugu beti lehentasun. Lor zitezkeen beste helburu handiagoen aurretik jarri dugu. Baina horrela ere, oso talde onak izan ditugu, Espainiako txapel-

ketak lortu dituztenak. Era berean, Federazioagaz batera makina bat jardueratan parte hartu dugu. Orain urte batzuk Estatu espainol mailako torneoa ere egin genuen sei-zazpi urtez: Real Madrid, Juventut, Estudiantes eta abar etortzen ziren. Nahiko entzutetsua zen. Halere, hori diruan oinarritzen zen, Udalak ematen bazuen egiten zen, eta bestela ez. Jende asko ezagutu genuen: entrenatzaile famatuak, orain maila gorenetan edo AEBetan jokatzeko dabilzan jokalariek eta abar. Gainera, kadete-mailakoa zen, polita. Azkenean, egiteari utzi genion arrazoi ekonomikoengatik.

Dena ez zen ederra izango. Une txarrak ere pasatu ditugu; batez ere, kontu ekonomikoak direla-eta. Gaur egun ere, batez ere gaur egun, baldintzatzen gaituzten kontuak dira. Orain hiru urte Irlandesas ikastetxeagaz akordio batera heldu ginen. Haiek emakumezko taldea zeukaten Espainiako bigarren mailan, indartsu. Baina ezin izan genuen talde hori bere kategorian mantendu. Arazo ekonomikoengatik izan ez balitz, baliteke gaur egun Gernika edo Galdakao dauden mailan egotea. Baina gure filosofiari jarraiki, ez genuen horrelakoengatik neska-mutilen formazioa sakrifikatu.

Zer jardueraz berezi dituzue aurten? Urteurren batzordea osatu dugu. Aste Santuan Piti Hurtado ekarri genuen jardueraz tekniko batera. Orain, eguraldi ona datorrela, saskibaloia kalera aterako dugu, bulebarra saskiz betez. Data zehatzik ez dugu, baina jaietan edo apur bat aurretik izango da. Jardunaldi hori euskaraz egin gura dugu. Era berean, ekainean Saskibaloia Jaia egingo dugu, denboraldia eta ikasturtea amaitzeko. Azkenik, ohiko udako eta neguko campusak izango ditugu. ◀

Info+: leioasbt.com

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

txakoli
mota gane TX.
txakolina

leioa-Urbe enpidea 34 (Akatanda Parke) Gohierri-Erandia
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagana.com

PINTXOAK

**OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ**

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

OSTABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

Loraldia jaialdiko
hiru ekitalditarako bina sarrera

Info+: www.hiruka.eus/zozetak

Apirilaren 21a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat, hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

SARIA

LORALDIA
EUSKAL KULTURA GAUR



Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Daborduko oporrak ahaztuta? Zurea benetan larria da, baina arrazoia duzu: merezi dituzu atseden egun batzuk berriro ere.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Amamak zioen legez, «gaizki-esaleak gutxiago ezagutuz, gutxiago jorratuko zaitu». Hortaz, kontuz nogaz zabilzan!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Datorren astean izango da Liburuaren Nazioarteko Eguna. Iaz erositako eleberria, baina, irakurri barik daukazu oraindino.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Lasai zahartu gura baduzu, zebra-bidea gurutzatu aurretik itxaron semaforoa berde ipini arte, eta begiratu alde bietara.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Herri giroa astunegi bihurtu bazaizu, baliatu arnasa hartzeko sortzen diren aukera apurrak. Domekan, Eran diogoikoan, esate baterako.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Sortutako harreman berriak elikatu beharra dago, hondatzea gura ez baduzu, behintzat. Hartu telefonoa eta geratu. Ez itxaron!



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Oporrak hasi aurretik zerren datxo bat idatzi zenuen egingo zenituen gauzak hurrenkeran jartzeko. Atera duzu sakelatik, eta bat ere ez dago ezabatuta.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Ez WhatsApp-ez, ez SMS-z, ezta Telegram-ez ere. Facebook-ez eta Twitter-ez, pentsatu ere ez. Posta elektronikoz are gutxiago. On doan bizi da-eta!



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Miatu berriro jasotako txartel guztiak. Zer edo zer ez dago ondo. Azkenean topatuko duzu zer den. Bitartean, ez larritu.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Bartzelonara joan ala ez joan, duda-mudan zaude? Horretarako ez irakurri horoskopoko xume baina zintzo hau, banku-libretaren zenbakiak baino.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Ettxera bueltatzen zaren bakoitzean, aurrekoan baino okerrago topatzen duzu. Halere, edozein aitzakia da ona trapua edo erratza ez hartzeko.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Hilaren akabura ailegatzeko zailtasunak dituzu, baina lagunak paseatzeagatik kobratzen duen zergarik oraindino ez dute asmatu.

Izan zaitez ARGIA. Eros ezazu Dacia bat.

Dacia Sandero
6.200€-tik aurrera¹



1 urtez²
ASEGURUA
DOAN | **5 urteko²**
BERMEA

Dacia España Dacia ESP

DACIA
GRUPE RENULT

www.dacia.es / 91 506 53 59 | Ikus ezazu zure Renault-Dacia kontzesionarioan.

1) PSPa Penintsularako eta Balearretarako da, partikular edo autonomo batek Sandero Base 1.2 55 kW (75 ZP) erosteko, barne dituzela zergak eta deskontua, eta PIVE-7 planaren baldintzak beteta. Irudiko modelo: Sandero Laureate 1.2 55 kW (75 ZP), GPSP 7.575€ PIVE-7 planarekin. Eskaintza 15/04/30ean bukatuko da. 2) Eskaintza partikularrentzat eta autonomoztat da. RCI Banque S.A. Sucursal en España-rekin finantzatuta. Finantzatu beharreko gutxienezko kopurua: 4.000€. Gutxienezko epea: 24 hilabete. Lehen urtean arisiko orotarako aseguruia barne MFPRERekin, 600€-ko frankiarenekin adinariaren arabera. 3. urteko bermea Dacia garna guztirentzat, lehen bi urteetan kilometro-mugarik gabe, eta hirugarren urtean bermea amaitu egingo da 100.000 km gaindituz gero. Hirugarren urteetik aurrera, Dacia Serenite-ren kontratuko berme-luzapena amaitu egingo da baldintza hauetako bat betetzen denean: 2 urte gehigarri edo guztira 80.000 km, bietan lehenengo gertatzen dena (ikus berme-luzapenaren kontratuen baldintzak). Auto-asegurua eta berme-luzapena RECSAren eta RCI Banque Sucursal en España-ren opari dira. Eskaintzak 2015/04/01etik 15/04/01era irauingo du. Ez da bateragarria beste finantza-ekintza batzuekin.

Dacia Sandero berria: kontsumo mistoa (l/100km) 3,8 eta 5,9 bitartean. CO₂-aren isuria (g/km) 99 eta 136 bitartean.

Dacia gomendatzen du


BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Hiribidea, 94. Tel. 94 480 42 90. Leioa www.renault.es/concesion/leioaberri



Lehen/Orain

Lamiakoko tren-geltokia



Erretratua

Txetxu Aurrekoetxea Urkixo

Erandioko bizilaguna eta hamaika saltsatoko burruntzalia



Herri mugimenduan eta politikan ibilitakoa da ingeniari erandioztarra: Altzaga Ikastolaren sorreran, Erandioren desanexioan eta ingurumenaren alde.

Erandioko «eltze guztietako zalea» dela diosku Txetxu Aurrekoetxea, eta arrazoiz, saltsa guztietan ibilitakoa baita ingeniari erandioztar hau. Erandio Club kirol elkartearen, Altzaga Ikastolaren sorreran, Erandio Bekoaren Auzokideen Elkartearen, «Gasaren kontrako» batzordean eta Erandio herriaren desanexioaren aldeko mugimenduan ibilitakoa da Aurrekoetxea, besteak beste. Herri mugimenduaz gainera, politikan ere jardundakoa da Aurrekoetxea, Erandioko Udalean eta Bizkaiko Batzar Nagusietan, barbarako; baita IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoan ere. Aurrekoetxea ondo gogoratzen ditu Altzaga Ikastola sortzeko uneak, «arazo ugari izan genituen hura sortzeko, Erandio Bilbo zelako eta hango alkateak ez zigulako egiten uzten. Garai haietan, inguruko alkateak oso faxistak ziren ikastolen moduko proiektuak onartzeko». Erandio Bilbotik desanexionatzeko bidea

ere gogoan du erandioztarrak, «Erandioko Auzokideen Elkartearen sorreragaz hasi zen desanexioaren bidea, bertoko Coliseoan egindako lehenengo batzarrean». Hortik aurrera, Erandiok independentea izan behar zuela erabaki zuten, eta baita lortu ere, 1983an. Erandio Club kirol elkarteaz,

“ Erandio Club kirol elkarteak Erandioren desanexioan biziki lagundu zuen ”

gainera, harro dago Aurrekoetxea, «lorpen ugari lortu ditu azken ehun urteotan, eta lehenengo mailan aritu diren jokalaritza ugari hemendik igaro dira, Zarra eta Venancio, barbarako». Era berean, taldeak Erandioren desanexioan lagundu zuela diosku Aurrekoetxea, «talde honek erandioztar sentitzen ginelako».

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzio-burua: Irantzu Sagaminaga

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte,

Julen Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Publizitatea: Erika Martinez

Kudeaketa: Ziertza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95 CC-BY-SA

Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:

